



**ITSASONDOKO
UDALA**

ITSASONDOKO KAXINTANE HERRIKO TABERNAREN KUDEAKETARAKO ETA USTIAPENERAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1. XEDEA

Administrazio-emakida kontratuaren helburua Itsasondoko Nagusia 27ko behean kokaturiko Itsasondoko Udalaren Kaxintane taberna-jatetxea (Herriko Taberna) kudeatzea, ustiatzea, administratzea, mantentzea eta zaintzea da, eta zerbitzu hori administrazio pleguotan jasotako baldintzen arabera eta herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean ematea.

Instalazioaren kudeaketak eta ustiapenak agiri honetan eta administrazio-baldintza zehatzen agiriaren gainontzeko xedapenetan jasotako prestazio eta jardueri erantzuten die.

Administrazio emaileari dagozkion funtzioak Udalak berak zuzenean bete ditzake.

2. INSTALAZIOAK ETA ONDASUNAK

Udalak emakidaren xede den taberna-jatetxea beharrezko instalazio eta ekipamenduarekin emango du, zerbitzua emateko egokia izan dadin.

Ondasunen inbentario zehatza ez da plegu honetan jasotzen, eta kontratua sinatzean zehaztuko da, esleipendunarekin batera adostutako inbentario baten bidez, zeina kontratuari eranskin gisa atxikiko zaion.

Behin betiko inbentario horretan jasotako ondasunak emakidadunari entregatuko zaizkio, eta kontratua amaitzean, ondasun horiek egoera onean itzuli beharko dira, ohiko erabilerak eragindako higadura arrunta salbu; gainontzekoan, Udalak bermea eskuratuko ahal izango du kalteen kostua berreskuratu arte eta bermea nahikoa ez balitz, esleipendunaren ondasunak ere atxikitu ahal izango ditu.

Jatetxe-tabernaren martxa onerako beharrezkoak diren gainerako tresnak esleipendunak bere kontura ordaindu beharko ditu.

3. ZERBITZUAREN ORDUTEGIA ETA IREKIERA BALDINTZAK

Adjudikaziodunak astelehenetan itxi ahal izango du establezimendua asteko atsedeen-egun gisa, baldin eta egun hori igandea, jaieguna edo jaiegun bezpera ez bada. Hala ere, egun horretan herrian hileta, ekitaldi edo bestelako jardueraren bat egiten bada, taberna irekita mantendu beharko da.

Taberna-zerbitzua itxita egon arren, eskola berria eraiki bitartean adjudikaziodunak eskolako jangela-zerbitzua bermatu beharko du.

Era berean, herriko taberna oporraldiagatik itxi ahal izango da abuztuan, herriko festen egunetan izan ezik, betiere aurrez Itsasondoko Udalari jakinarazita.

Herriko taberna gutxienez 08:30etatik 22:00etara egon beharko da irekita. eta gehienez 06:00etatik 00:30era arte luzatu ahal izango da ordutegia. Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan, itxiera-ordua 01:30era arte luzatu ahal izango da. Ordutegiak ezarri eta aplikatzerakoan, indarrean dagoen araudia errespetatuko da, bereziki ostalaritza-establezimenduen ordutegiei buruzkoa.

Hala ere, ordutegi hori luzatu ahal izango da jaiegunetan, jaiegun bezperetan edo bestelako ospakizunetan, indarrean dagoen araudiaren arabera eta alde zuzenetik Udalari jakinarazita eta haren baimena jasota.



**ITSASONDOKO
UDALA**

Aurreko ordutegiak gutxienekoak izango dira, eta emakidadunak bere eskaintzan proposatutako hobeak aplikatu ahal izango ditu.

4. EMAKIDUNAREN OBLIGAZIO BEREZIAK

1. Onartzeko eskubidea eta erabiltzaileen tratamendua

Emakidadunak sarrera ukatzeko eskubidea baliatu ahal izango du, betiere arrazoi objektibo eta justifikatuetan oinarrituta, eta indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Sarrera ukatzeko erabakia soilik hartu ahal izango da pertsona baten jokabideak herriko bizikidetzara, ordena publikoa edo pertsonen segurtasuna larriki kaltetzen dituenean, eta behar bezala arrazoitu beharko da.

Egoera horiek gertatzen direnean, emakidadunak ahalik eta lasterren Udalarari jakinarazi beharko dizkio.

Ezin izango da inola ere sarrera ukatu diskriminazio-arrazoiengatik, eta herritar zein kanpotar guztiei tratatu egokia eta errespetuzkoa eskaini beharko zaie.

Aurreko baldintzak urratzea kontratua azkentzeko kausa izan daiteke.

2. Kudeaketa eta antolaketa

Emakidadunak zuzenean eta bere gain hartuko du taberna-jatetxearen kudeaketa eta zuzendaritza. Zerbitzua behar bezala emateko neurri egokiak hartu beharko ditu, bai lokalaren barruan bai kanpoaldean, bereziki zarata-mailak kontrolatzeko eta bizilagunei eragozpenik ez sortzeko. Kolaboratzaileak edo langileak eduki ditzake, baina horiek ez dute inolako loturarik edo lan-harremanik edukiko Itsasondoko Udalarekin.

Taberna-jatetxearen kudeaketa osoaren ustiapenerako kontratua lagatzea, eskualdatzea edo alokatzea debekatuta dago, eta kontratatzailea da haren ustiapenaren arduradun zuzena.

Emakidadunak taberna-jatetxearen ustiapena egin behar du, eta zabalik eta zerbitzu guztiekin mantendu behar du, alegia, bazkariak, edariak, ogitartekoak etab. eskaini, eta, edonola ere, agirietan jasotako moduan zerbitzua eman.

Zerbitzua emateko, emakidadunak edo sukaldeko langileetako batek elikagaiak manipulatzeko karneta eta ostalaritzako tituluren bat eduki behar ditu emakidaren hasieran.



**ITSASONDOKO
UDALA**

3. Gutxieneko zerbitzuak:

Emakidadunak herriko tabernaren izaera bermatzeko eta zerbitzu publikoaren funtzio soziala betetzeko, gutxienez honako zerbitzuak eskaini beharko ditu:

Taberna-zerbitzua:

- Edariak eta kafea eguneko ordutegi nagusian zehar
- Pintxo edo antzeko eskaintza minimoa

Janari-zerbitzua:

- Eskolako jangela zerbitzua eskola berria egiten den bitartean
- Bazkariak egunero emango dira (eguneko menu zerbitzua) eskolako jangela zerbitzua eteten denetik aurrera, asteko atsedeen-egunean edo oporraldian salbu.
- Afariak gutxienez ostiraletan, jaiegun-bezperatan eta jaiegunetan emango dira, eta baita herriko jaietan ere.
- Asteburuetan edo jaiegunetan janari eskaintza egokitua (bazkari eta afariak, menua edo antzekoa)

Oinarrizko eskaintza anitza:

- Ogitartekoak, plater konbinatuak edo antzekoak
- Behar berezietara egokitutako aukerak, ahal den neurrian (adibidez, zeliakoak, beganoak, etab.)

Zerbitzuaren jarraitutasuna:

- Zerbitzuak modu erregularrean eskaini beharko dira, herriko bizitzaren erritmoari egokituta

Herriko funtzio soziala:

- Taberna-jatetxea herritarren topagune gisa mantentzea.
- Herriko ekimen eta jarduerekin bateragarri izatea eta ahal den neurrian horietan laguntzea edo parte hartzea

Aurreko zerbitzuak gutxieneko baldintzak izango dira. Emakidadunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzak aplikatu ahal izango ditu. Zerbitzu minimo horiek ez betetzea kontratuaren ez-betetze larritzat jo ahal izango da



**ITSASONDOKO
UDALA**

4. Eskolako jangela zerbitzua eta bestelakoak

Gaur egun Urkipe Herri Eskola-ren eraikin berria eraikitzen ari denez, eskola behin-behinean udaletxeko eraikinean dago kokatuta. Egoera horrek irauten duen bitartean, adjudikaziodunak eskolako jangela-zerbitzua eman beharko du ikasturteak dirauen bitartean, plegu honetan ezarritako baldintzen arabera.

Zerbitzua irailetik ekainaren amaiera arte eskainiko da, astelehenetik ostiralera, eta jangela-ordutegia 11:45etik 14:00etara izango da.

Jatorduak Kaxintane tabernan prestatu beharko dira, eta ondoren Bizi Nahi Jubilatuen Elkartea-ra garraiatu eta bertan zerbitzatu. 11:45erako bazkaria prest eta zerbitzatzeko moduan egon beharko da. Bi txanda antolatuko dira: lehenengo Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta ondoren Lehen Hezkuntzakoentzat.

Adjudikaziodunaren ardura izango da jangela-zerbitzua osorik kudeatzea, besteak beste: elikagaiak erostea, menuak prestatzea, janaria garraiatzea, zerbitzatzeari erabilgarritasuna ematea eta tresneria garbitu eta jasotzea, eta jangela-erabilerarako espazioaren garbiketa eta desinfekzioa egitea, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzen arabera. Lehentasuna emango zaio herriko eta inguruko saltoki eta ekoizleei lehengaiak erosteari.

Jangela-zerbitzuaren prezioa eta baldintza ekonomikoak Hezkuntza Sailak edo dagokion erakunde eskudunak ezarritakoaren arabera aplikatuko dira, eta ordainketak Urkipe Herri Eskola-k egingo ditu, adjudikaziodunak aurkeztutako fakturen arabera. Fakturretan hilabete bakoitzean zerbitzatutako bazkari kopurua zehaztu beharko da.

Itsasondoko Udala-k jangela-zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren espazioen egokitzapena eta oinarritzko baliabideak jarriko ditu, baita menuen diseinurako eta zerbitzuaren aholkularitzarako beharrezko laguntza teknikoa ere.

Zerbitzua emateko beharrezko langileen antolaketa adjudikaziodunaren ardura izango da, eta hark bermatu beharko du zerbitzuaren jarraitutasuna edozein gorabehera edo langileen absentiaren aurrean.

Era berean, jangela-zerbitzua indarrean dagoen bitartean, adjudikaziodunak igandeetan 21:00etan itxi ahal izango du taberna, langileen atsedena bermatzeko. Astelehenetako atsedena ere errespetatu ahal izango da taberna-zerbitzuari dagokionez; hala ere, egun horretan jangela-zerbitzua normaltasunez eman beharko da.

Horrez gain, adjudikaziodunak frontoiko argi-indarra erabiltzeko fitxen kobrantza kudeatu beharko du, Itsasondoko Udala-k ezarritako baldintzen arabera.

5. Gastuak eta zergak

Emakidadunak bere gain hartuko ditu negozioaren ustiapena zergapetzen duten mota guztietako zerga eta tasak, bai eta jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimen, lizentzia eta administrazio- izapideen ondoriozko gastu guztiak ere.

Era berean, udalarekin bestelakorik adostu ezear, emakidadunak bere gain hartuko ditu ustiapenari lotutako gastu guztiak, besteak beste:

- Energia elektrikoa, gasa, ura, alarma sistema eta telefonoa
- Udal tasak eta prezio publikoak
- Jarduerarekin zuzenean lotutako zergak



ITSASONDOKO UDALA

- Beharrezko baimen eta lizentzien kostuak
- Ustiapenari lotutako gainerako gastu arrunt guztiak

Halaber, adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu taberna-jatetxearen eguneroko funtzionamendurako beharrezko material, hornidura eta zerbitzu guztiak, hala nola garbiketa-materiala, kontsumigarriak, izakinak, tresneriaren ordezkapena, ohiko mantentze-lanak, segurtasuna eta langileen gastuak. Produktu eta materialen hautaketan ingurumen-irizpideak lehenetsiko dira.

Taberna-jatetxe zerbitzuaren eta bestelako zerbitzu osagarrien ustiapenetik eratorritako diru-sarrerak esleipendunarentzat izango dira oso-osorik, eta hark bere gain hartuko ditu horiei lotutako zerga-, administrazio- eta bestelako obligazio guztiak.

Debekatuta dago instalazioen erabilera edo ustiapena kaltetu dezaketen jardueren bidez ezohiko diru-sarrerak lortzea. Nolanahi ere, halako jarduerak egiteko, alde zuzenetik Udalaren baimena beharko da.

6. Betebehar ekonomiko eta administratiboak

Adjudikaziodunak hileroko ordaindu beharko du dagokion errenta, Itsasondoko Udala-k zehazten duen lekuan edo banku-kontuan, eta plegu honetan ezarritako baldintzen arabera.

Era berean, adjudikaziodunaren kontura izango dira hornitzaileekin dituen zorrak eta negozioaren ustiapenetik eratorritako mota guztietako erantzukizunak, hala nola kontratuz kanpoko erantzukizunak, kalte-ordainak, zergak, isunak edo zehapenak. Ondorioz, ezin izango zaio Udalari zuzenean edo zeharka inolako erantzukizunik eskatu negozioaren ustiapenaren ondorioz sortutako arazoengatik.

Adjudikaziodunak ezin izango du lokalean inolako obra, aldaketa edo hobekuntzarik egin Itsasondoko Udala-ren alde zuzeneko idatzizko baimenik gabe. Egindako obra, instalazio edo hobekuntza guztiak lokalari lotuta geratuko dira, eta kontratua amaitzean Udalaren jabetzara igaroko dira, inolako kalte-ordain edo ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe. Udalak ez du inolako hobekuntza edo egokitzapenik egiteko betebeharririk izango.

Negoziaren ustiapenarekin lotuta edozein oztopo, bahitura edo antzeko jarduketaren bat gertatuz gero, adjudikaziodunak dagokion esleipen-kontratua erakutsi beharko du eta espresuki adierazi beharko du ustiapena emakida edo esleipen administratibo baten bidez egiten dela. Era berean, gertatutakoa berehala jakinarazi beharko dio Udalari, hark bere eskubideak defendatzeko beharrezko neurriak hartu ahal izan ditzan. Egoera horien ondorioz sortzen diren gastu judizial edo administratibo guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Azkenik, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du esleipena indarrean dagoen bitartean sortutako ordainketa, zerga, isun, zehapen edo negozioaren ustiapenetik eratorritako bestelako karga guztiak bere gain hartzea eta negozioa utzi aurretik guztiz kitatzera, Udalari inolako kalterik edo erantzukizunik ez eragiteko.

7. Instalazioen mantentzea eta kontserbazioa

Emakidadunak lokala, instalazioak eta ekipamendua egoera onean mantendu beharko ditu, eta horien erabilera egokia bermatu.

Bere kontura izango dira mantentze-lan arruntak, konponketak eta beharrezko ordezkapenak, bai eta erabiltzaileek eragindako kalteak ere. Halaber, emakidadunaren erruz edo zabarkeriagatik sortutako kalte guztiak haren kontura izango dira.

Kontratua amaitzean, ondasunak jasotako egoera berean itzuli beharko dira, ohiko erabileraren



ITSASONDOKO UDALA

ondoriozko higadura arrunta salbu.

Taberna-jatetxeko makinaren eta etxetresna elektrikoaren mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak emakidadunaren kontura izango dira, baldin eta kalteen jatorria erabilera arrunta, mantentze falta edo erabilera desegokia bada.

Inbentarioan zehaztutako ekipamendu eta instalazioen kasuan, elementu baten matxura edo hondatzea egiturazko akatsen edo zaharkitzearen ondorio bada, eta ez bada emakidadunari egotz dakioken arrazoiaren ondorio, Udalari dagokio haren konponketa edo ordezkapena, dagokion txosten teknikoaren egin ondoren.

Emakidadunak udal-jabetzako instalazioetan edo ekipamenduetan gertatzen diren matxuren berri berehala eman beharko dio Udalari.

Udalak, bere aldetik, aldian-aldian instalazioen, makinaren eta ekipamenduen egoera berrikusi ahal izango du, eta egoki iriziz gero, txosten teknikoak egin edo eskatu ahal izango ditu.

Etxetresna elektriko txikiak, baxerak, tresnak, luminariak, txorrotak, sarrailak, altzariak eta antzeko elementuen mantentzea, konponketa edo ordezkapena emakidadunaren kontura izango dira. Hala nola, Udalak bere esku utzi dituen pintura, argiaren eta uraren instalazioak, atak, leihoak, pertsianak, sukaldea, tresnak, eta antzekoak kontserbatzeko, konpontzeko edo ordezkatzeko behar diren lanak esleipendunaren kontura eta ardurapean egingo dira. Horrez gain, lokala margotzeko betebeharra izango du, Obra eta Zerbitzuko batzordeak horrela erabakitzen duenean.

Emakidadunak bere ekimenez instalazioetan edo ekipamenduan hobekuntzak edo konponketak egiten baditu, horiek Udalaren jabetzara igaroko dira kontratua amaitzean, kalte-ordainik gabe.

Ustiapenerako beharrezko material osagarria, inbentarioan jasota ez dagoena eta Udalak emandakoa ez dena, emakidadunaren kontura izango da, eta kontratua amaitzean bereganatu ahal izango du.

Instalazioetan edo ekipamenduan egiten diren jarduketan guztiek energia-eraginkortasunaren eta baliabideen erabilera arduratsuen irizpideak errespetatu beharko dituzte.

Konponketa irizpideak:

Mantentze-lan arruntak izango dira erabilera arruntaren ondorioz sortzen diren konponketak, higadura edo ordezkapenak, eta emakidadunaren kontura izango dira.

Egiturazko konponketak izango dira instalazioen akats, zaharkitze edo diseinu-arazoaren ondoriozkoak, eta, kasu horietan, Udalari dagokio horien konponketa edo ordezkapena.

Kaltearen jatorriari buruzko zalantzarik izanez gero, txosten tekniko baten bidez zehaztuko da kaltearen izaera eta, ondorioz, dagokion erantzukizuna.



**ITSASONDOKO
UDALA**

Adibide orientagarriak:

ELEMENTUA / KASUA	MOTA	ERANTZUKIZUNA
Bonbillak, luminariak	Mantentze arrunta	Emakidaduna
Txorrotak, sarrailak	Mantentze arrunta	Emakidaduna
Baxerak, tresnak, edalontziak	Mantentze arrunta	Emakidaduna
Hozkailu edo makinaren matxura erabilera arruntatik	Mantentze arrunta	Emakidaduna
Sukaldeko garbiketa tekniko eta mantentzea	Mantentze arrunta	Emakidaduna

ELEMENTUA / KASUA	MOTA	ERANTZUKIZUNA
Pintaketa arrunta (higadura)	Mantentze arrunta	Emakidaduna
Instalazio elektriko zaharkitua	Egiturazkoa	Udala
Hoditeria gaizki instalatuta edo akastuna	Egiturazkoa	Udala
Lurzoruaren akatsak (irristakortasuna, pitzadurak)	Egiturazkoa	Udala
Egiturako kalteak (sabaiak, hormak, egitura)	Egiturazkoa	Udala
Makina zaharkitua edo bizitza erabilgarria agortuta	Egiturazkoa	Udala
Kaltearen jatorria argi ez dagoenean	Zalantzazkoa	Txosten teknikoak

OHARRA

Adibide hauek orientagarriak dira, eta kasu bakoitzean kaltearen jatorria aztertuta zehaztuko da dagokion erantzukizuna.

8. Garbiketa

Lokalaren barrualdea eta ingurunea garbi eta egoera egokian mantendu beharko dira.

Tabernaren aurrealdearen garbiketa ere bere gain hartu beharko du, eta gutxienez egunero egingo da.

Garbiketa lanak auzokoei eragozpenik sortu gabe egingo dira.



**ITSASONDOKO
UDALA**

9. Kanpoko espazioaren erabilera (terraza)

Lokalaren kanpoaldean mahaiak eta mahai tolesgarriak jarri ahal izango dira, betiere dagokion udal-baimena eskuratuta eta baimendutako espazioa eta baldintzak errespetatuta. Baimenean okupatu ahal izango den azalera eta erabilera-baldintzak zehaztuko dira.

Mahaiak gehienez 09:30etik 22:00etara erabili ahal izango dira, eta ordutegi horretatik aurrera ez da zerbitzurik emango. Itxiera-ordua iritsitakoan, mahaiak jaso eta tabernaren barruan gorde beharko dira. Herriko jaietan edo bestelako egun eta ospakizun berezietan ordutegi hori luzatu ahal izango da, aldez aurretik Itsasondoko Udala-ri jakinarazi eta haren onarpena lortuta.

Baimena prekario izaerakoa izango da, eta Udalak edozein unetan baliogabetu ahal izango du, ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo auzokoei eragozpenak nahiz molestia nabarmenak sortzen bazaizkie.

Adjudikaziodunak urtero ordaindu beharko ditu jabari publikoaren erabileragatik indarrean dauden ordenantza fiskalek ezarritako tasak eta dagozkien eguneraketak. Era berean, mahaiak jartzen diren espazioaren garbiketa eta higiene egokia bermatu beharko ditu une oro. Horretarako, espazioa egun osoan zehar egoera onean mantendu beharko da, aldi behingo garbiketa-lanak eginez, eta establezimendua itxi ondorengo ordubeteko epean azken garbiketa egin beharko da. Kudeaketa hondakinak ahalik eta gehien saihesteko moduan egingo da.

10. Jardueraren mugak

Lokala taberna-jatetxe gisa bakarrik erabiliko da. Hala ere, bestelako kultur ekintzaren bat antolatu nahi ezker, Udalak baimena eman ahal izango du egoki deritzon.

Musika ez da baimenduta egongo 22:00etatik aurrera.

Debekatuta dago:

- Diruzko joko edo apustu makinak jartzea
- Baimenik gabeko makina banatzaileak jartzea

Lokalean ez da onartuko animaliarik, salbu eta desgaitasuna duten pertsonak laguntzeko erabiltzen diren laguntza-animaien kasuan, indarrean dagoen araudiaren arabera. Gainerako animalien sarrera debekatuta egongo da.

11. Langileak eta erantzukizuna

Emakidaduna izango da negozioaren titular bakarra, eta, ondorioz, Udalak ez du inolaz ere esleipendunak egindako ekintzen gaineko erantzukizunik bere gain hartuko.

Esleipendunak bere obligazioei erantzuteko behar diren langileak kontratatu beharko ditu. Langile horiek esleipendunaren mende egongo dira soilik, eta honek bere gain hartuko ditu antolaketa-, zuzendaritza- eta diziplina-ahalmen guztiak, langileen jarduera zuzendu eta koordinatuz.

Langileek ez dute inolako harreman juridikorik izango Udalarekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez eta amaitu ondoren ere; ez lan-harremanik, ez kontratu-harremanik, ezta funtzionario-izaerarik ere.

Esleipendunak indarrean dagoen araudia bete beharko du, bereziki lan, Gizarte Segurantzza, laneko segurtasun eta higiene, lan-arriskuen prebentzio, desgaituen gizarteratze eta genero-berdintasun arloetan. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunak obligazio horiek betetzen ez baditu.



ITSASONDOKO UDALA

Kontratua amaitzean, langile guztiek instalazioak utzi beharko dituzte, eta Udalak ez du haiekiko inolako betebeharrak edo erantzukizunik izango; langileei dagozkien kalte-ordain edo konpentsazio guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

Zerbitzua ematen duten langileek itxura txukuna eta egokia izan beharko dute, eta beren jardunean profesionaltasuna eta adeitasuna erakutsi beharko dituzte. Halaber, Udalaren jarraibideak kontuan hartuko dituzte, eta erabiltzaileei arreta egokia eta errespetuzkoa eskainiko diete.

12. Aseguruak

Eraikinak eta instalazioak aseguratu egin beharko ditu sute eta hondamendien aurka, uraren kalteen aurka, kalte elektrikoen aurka, instalazioetako isuri edo ihesen aurka eta erantzukizun zibilerako. Aseguruaren kapitala gutxienez lokalaren balioaren bestekoa izango da. Kontratu honen ondorioetarako lokala 150.000 eurotan baloratzen da eta barruko ekipamendua 36.000 eurotan.

Jardueran zehar, zerbitzuaren funtzionamenduak pertsonari edo ondasunei eragin diezazkieken kalte-galerengatik ondare-erantzukizuna bere gain hartuko ditu, kalte-galera horiek esleipendunari edo haren mendeko pertsonari egotz dakizkiokeelako. Xede horrekin, esleipendunak erantzukizun zibileko asegurua kontratatatu behar du, eta gutxienezko kapitala 300.000 eurokoa izango da.

Poliza aurkeztu beharko da esleipenaren ondorengo 15 egunetan, eta urtero eguneratu. Kontratua indarrean dagoen bitartean, urtero asegurua indarrean dagoela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Esleipenduna izango da pertsonari nola ondasunei eragindako kalteen arduraduna.

13. Obrak eta hobekuntzak

Edozein obra edo hobekuntza egiteko, aldeztu aurretik Udalaren baimena beharko da.

Egindako hobekuntzak Udalaren jabetzara igaroko dira kontratua amaitzean, kalte-ordainik gabe.

14. Erantzukizunak

Emakidadunak bere gain hartuko ditu ustiapenetik eratorritako erantzukizun guztiak, eta Udalari ezin izango zaio inolako erantzukizunik eskatu. Itsasondoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango emakidadunak edo kontratatzaileak baldintza teknikoaren edo administrazio-baldintzen agirian jasotzen diren baldintzak bete ez izateagatik.

15. Hizkuntza-betebeharrak

Jendaurreko langileek euskararen oinarritzko ezagutza izan beharko dute. Emakidadunak neurriak hartuko ditu hizkuntza-gaitasuna bermatzeko.

Gainera, jarduera gauzatzeko erabiltzen diren UEMAko euskara irizpideak kontutan izan beharko dira, hala nola:

- **Udalaren eta enpresaren arteko harremana:** Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatu behar du, eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluaren zehaztutako aukerari jarraiki.



ITSASONDOKO UDALA

- **Herritarrekin harremana izango duten lanpostuetako langileen hizkuntza gaitasuna:** kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu eta herritarrekin harremana euskaraz izatea sustatuko da.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, 19/2024 dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 13. artikuluan ezarritakoa betez.

- **Ahozko erabilera:** Erabiltzaileentzako arreta euskaraz egingo da. Herritarrenganako lehen hitza (gutxienez) euskaraz izango da.

Herritarrek edozein unetan erabili ahal izango dute hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

- **Errotuluak, kartelak, menuetarako arbelak, webgunea...:** errotuluak, kartelak eta tabernako hizkuntza paisaia orokorreko gainerako elementuak euskaraz egongo dira. Bi hizkuntzetan edo gehiagotan egiten badira, euskarari lehentasuna emanez (euskara nabarmenduta) jarriko dira.
- **Eskuko menuak, prezio zerrendak...:** herritarrentzako eskuko menuak, tiketak, fakturak eta eskura ematen diren bestelako agiriak euskaraz egongo dira; betiere, hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntz eskubideak bermatuta.
- **Telebista, musika, irrati, egunkari, aldizkari eta antzekoak:** telebista, musika, irrati, egunkari, aldizkari eta antzekoak euskaraz izatea lehenetsiko da.
- **Euskarazko testuen kalitatea eta itzulpena:** euskarazko testuen kalitatea bermatzeko, kanpora begirako testuak eta etengabe erabiltzen direnak gainbegiratzeko udalaren laguntza eskainiko da eta beharrezkoa denean itzultzeko ere bai.

16. Herriko informazioaren zabalkundea

Herri ostatuaren izaera soziala eta herriko bizitzari egiten dion ekarpena kontuan hartuta, emakidadunak Udalak edo herriko eragileek sustatutako jarduera, ekimen edo izen-emateei buruzko informazioa zabaltzen lagundu beharko du.

Horretarako, udalak hala eskatuz gero, taberna-jatetxean leku egoki batean kartelak, oharrak edo bestelako informazio-euskarriak jarriko dira, herritarrek eskuragarri izan ditzaten.

17. Bestelakoak

Emakidadunak tabernaren ustiapenean zehar ustiapenari buruzko hobekuntzak eta aldaketak proposatu ahal izango dizkio Udalari. Udalak proposamen horiek aztertu ondoren, egoki irizitako erabakia hartuko du, erabakitzeko ahalmena Udalari dagokio.

Emakidadunak jarduera hasteko beharrezkoak diren osasun-baimenak eta gainerako administrazio-baimen guztiak eskuratu beharko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.



ITSASONDOKO UDALA

Halaber, erreklamazio-orriak edo liburua jendearen eskura eduki beharko ditu une oro, aplikagarria den araudiak ezarritako moduan.

Prezioak jendaurrean jarri beharko dira, ikusgai eta erabiltzaileentzat eskuragarri, behar bezala identifikatuta eta ulertzeko moduan adierazita.

Emakidadunak hondakinen kudeaketa egokia bermatu beharko du, udal-araudiak ezarritako baldintzak eta ordutegiak errespetatuz. Hondakinak behar bezala bereizi beharko dira (beira, papera, ontziak, materia organikoa eta errefusa), eta dagokion edukiontzietan utzi.

Zaborrak ateratzeko erabiltzen diren orgak eta edukiontzia egoera garbi eta egokian mantendu beharko dira, usain txarrak eta eragozpenak saihesteko.

6. UDALAREN OBLIGAZIOAK

Udalak indarreko legedian zehazten diren obligazio orokorrak, agiri honetan jasotakoak eta SPKLaren 289. artikuluan emakidadunari aitortzen zaizkion eskubideen ondoriozkoak bete behar ditu:

- 1.- Emakidaren xede diren lokalak erraztea esleipendunari.
- 2.- Esleipendunari inbentarioan definitzen diren altzariak, tresnak eta funtsezko elementuak ahalbidetzea. Elementu horietako batzuk emakidadunak eta beste batzuk Udalak birjarri behar ditu, agiri honi erantsitako inbentarioan zehaztutakoaren arabera.
- 3.- Udalak dituen baliabideekin esleipendunari beharrezko babesa ematea, zerbitzuaren prestazio normalerako.
- 4.- Establezimendua aseguratzea (edukitzailea).
- 5.- Azpiegituran inbertsio baterako obren eta horniduren gastuak ordaintzea.

Horrez gain, Udalak emakidadunari plegu honetan jasotako eskubideen erabilera bermatuko dio.

Hala ere, Udalaren borondatez, kanpoko arrazoiengatik edo kalte berezien ondorioz emakidadunak zerbitzua ematen jarraitu ezin badu, ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Nolanahi ere, zerbitzua ematen ez den aldiari dagokion epean, ez da ustiapen-kanona ordaintzeko betebeharririk izango.

7. ZERBITZUA IKUSKATZEA

Esleipendunak lizitazio honetan parte hartzearekin baldintzen agiria espresuki eta formalki onartzen du eta Itsasondoko Udalarik lokalean sartzeko baimen osoa eta formala ematen dio instalazioen egoera eta funtzionamendu egokiak eta baldintzen agirietan aurreikusitako xedapenak betetzen direla egiaztatzeko. Modu horretara, Itsasondoko Udalak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatu ahal izango du, une oro.

Era berean, zerbitzuaren jarraipena eta balorazioa egiteko, gutxienez urtean behin bilera bat egingo da Udalaren eta adjudikaziodunaren artean. Bilera horretan zerbitzuaren egoera orokorra, funtzionamendua, gorabeherak eta hobekuntza-proposamenak aztertuko dira.



**ITSASONDOKO
UDALA**

8. KONTROLA

Itsasondoko Udalak, alkateak kasu bakoitzean izendatzen duen pertsonaren bitartez, tabernajetetxearen funtzionamendua, barneko ordena, irekiera eta itxiera ordutegia eta garbiketa behatu eta kontrola ditzake. Horretarako, Itsasondoko Udalak toki eta instalazio guztietara askatasunez sartzeko aukera du.

Hutsunerik antzematen bada, dagokion akta idatziko da. Lehenbizi, idatzizko ohartarazpena egingo da, eta, bigarrenik, espediente zigortzailea abiaraziko da, dagozkion isunak ezartzeko, eta, hala badagokio, kontratuari amaiera emateko.

Itsasondoko Udalak zehazpen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake, kautelazko neurri gisa.

9. AZPIKONTRATAZIOA

SPKLaren 296. artikulua arabera, lege-testu berdinen 215, 216 eta 217 artikuluei lotuta, prestazio osagarriak bakarrik azpikontrata daitezke emakidan zehar.